

## 6. KANALAK

Bezeroengana iristeko zenbait bide izango ditugu:

Batetik, denda fisikoa izango dugu. Enpresa Belartza poligonoan egongo da eta esan bezala, bertan edukiko dugu salmenta gunea. Kotxez iristeko leku aproposa da, autopistatik erraz irits daitekeelako eta bertaratzeko garraiorik ez dutenentzat, ez da arazorik izango, Donostiatik datorren jendea autobusez joan daitekeelako. Gainera, gune honetan Decathlon kirol denda dago eta bezeroak ohituak daude zona honetara etortzera kiroleko materialaren bila; beraz, gure enpresako dinamizazioa sustatuko du. Horrez gain, kontuan hartuta hirierdigunearekiko gertutasuna eta komunikazio ona, bertako lurraren alokairua ez da hain garestia; ondorioz, lokala handia izan arren ez da hain garestia izango eta hortaz, gure kostuak txikitzea lortuko dugu.

Bestetik, gure denda ireki baina lehen, hirian barne, auzo ezberdinetan, publizitatuko dugu. Horretarako, enpresa berriaren inguruko informazio garrantzitsu eta esanguratsua papeleta batzuetan ipini, eta argazki erakargarri batzuk erantsiz, gu bisitatzera gonbidatuko ditugu.

Web orrialde bat ere izango dugunez, bezeroek aukera izango dute gure material guztiak bertan ikusteko eta erreserbatzeko, ondoren denda fisikora bila etortzeko. Edo produktua helbide batera eskatu eta gure zerbitzuei esker bezeroari eskatutakoa eramateko aukera izango du. Lehen esan bezala, DHL enpresarekin kontaktuan jarriko gara; horrela, bezeroentzat materialak garraiatzea errazagoa izango da, gure enpresa kirola praktikatzen den guneetatik urruti xamar dagoela badakigulako, beraz zerbitzu hau eskainiz ez dute arazorik izango material pisutsuak alde batetik bestera mugitzeko.